

Ekitaldi berria, kudeaketa zaharra

Ertaroko merkatuaren kudeaketarekin, gobernu taldeak bere gobernantza estiloa erakutsi du, tokiko merkataria kontuan hartu gabe, hiritarren partehartzea praktikan ezinduz, Arrasateko eragileen lanari inongo aitortzarik egin gabe. Antolakuntza desastre utsa izan da, Ibaiarteko merkatariek antolatzen duten Merke Merkatuarekin gainjarri da, honek herriko merkatariei eragozpen eta galera handiak eraginez. Ibaiartek hilabeteen tartearekin abixatu zituen Merke Merkatuaren egunak Ertaroko Merkatuarekin talka egingo zituela, baina gobernuak ahaztu egin zituen eta kontraprogramatu, kudeaketa lotsagarria erakutsiz.

Arrasatearren zergetan jasotzen diren diruek herri eta herritarrentzako onuragarriak diren ekimenetan ondo gastatzea merezi dute gure auzolagunek, gizarte eta ekonomi mailan eraginak izan ditzaten. Baina ekimen hauek inklusiboak izatea behar dute, herritarren parte hartzea bermatzen duten herramintak ezarriz eta batez ere, Arrasatek duen ondare historiko aberats eta anitza aintzat hartzea ezinbestekoa da horrelakoetan. Are gehiago gure herriak dituen hainbat ertaroko ondasun eta historia adituekin. Gizarte eragileei eta gure kulturari begira, errespetu eta barne ezagutza falta larria iruditu zaigu. Euskarak izan duen esparru eskaxa ere hobetu beharreko gaia da. Programazioan tokiko merkatariekin koordinazio falta gehituz, esan dezakegu ekimenaren antolakuntza erabateko zentzugabekeria izan dela.

Auzoei begira, betiko joera baieztatzen da. Hainbat ekitaldi izan dira baina guztiak erdialdean, bakar bat ere ez auzoetan. Auzoekiko ardura eta udal politika ez dira slogan xume batzuk programatan eramateko, horrelakoetan erakusten da benetako fedea, praktikan. Eta oraingoan berriro ere, auzoak ahaztuak izan dira.

Udal gobernuak duen aisialdi eta festa ereduari buelta bat ematea beharrezkoa dela deritzogu, astebukaeran honetan eman diren akats eta galerak errepika ez daitezen; adibidez Balmasedan ematen den eredua jarraituz non historia, kultura eta hiritarren parte hartzeak bat egiten duten ekitaldien plangintzan, iada XIX. edizio arrakastatsu izan dituela. Gure herriko kultura eta ondarea errespetatu eta balorea ematen dion ikuskizuna nahi dugu, tokiko merkatarien kontra beharrean haiekin elkarlanean dihoana, guztion onura amankomuna bilatuz, herritar eta auzokideen parte hartzea bultzatuz.